

## Establezimendu guztien % 27,1ek merkataritza elektronikoa egin dute 2019an Euskal Autonomia Erkidegoan, hau da, aurreko urtean baino zortzi hamarren gehiagok

**% 12tik gorako igoerak erregistratu dira aurreko urtearekin alderatuta, salmenta zein erosketak elektronikoenetan**

Euskal Autonomia Erkidegoko establezimenduen % 27,1ek (berrogeita lau mila establezimendu inguruk) merkataritza elektronikoa egin dute 2019an Euskadin, eta, kalkulaturakoaren arabera, prozedura horren bidez egiten dituzten salmentak eta erosketak guztien % 43,7 eta % 38,4 izan dira, hurrenez hurren, EUSTATEk landutako datuen arabera.

Horrela, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko **merkataritza elektronikoen** zifra ekonomikoek gora egin dute aurreko urtearekin alderatuta. Merkataritza elektronikoen bidezko salmenten kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoan % 12,4ko igoera izan da, eta sistema horren bidez egindako erosketen kasuan, berriz, % 12,7koa.

2019an sarearen edo beste sistema elektronikoen batzuen bidez (hala nola posta elektronikoen edo datu elektronikoen elkartrukatzearen bidez –EDI eta beste sare batzuk–) sortutako negozio-bolumena 21.521,6 milioi eurora iritsi da egindako salmenta elektronikoen dagokienez, eta 15.851,3 milioi eurora egindako erosketen dagokienez.

### **Merkataritza elektronikoen bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera**

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2018	2019	Δ %	2018	2019	Δ %
Euskal AE	14.065,9	15.851,3	12,7	19.142,9	21.521,6	12,4
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	2.520,6	2.821,2	11,9	5.933,0	6.526,1	10,0
Bizkaia	7.184,8	8.125,9	13,1	7.065,7	7.969,2	12,8
Gipuzkoa	4.360,6	4.904,1	12,5	6.144,3	7.026,4	14,4
Enplegu-geruza						
0 - 9	4.101,3	4.780,6	16,6	3.192,9	3.586,1	12,3
≥ 10	9.964,7	11.070,6	11,1	15.950,0	17.935,5	12,4

(\*) Euroak, milioikotan

**Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak**

Lurraldeari dagokionez, salmenta elektronikoetan Gipuzkoan gertatutako igoera nabarmentzen da (% 14,4ko igoera). Bizkaian, berriz, % 12,8ko igoera izan da, eta Araban % 10,0koa. Erosketa elektronikoaren kasuan, berriz, Bizkaian lortu da igoerarik handiena (% 13,1), eta, atzetik, Gipuzkoa eta Araba kokatu dira (% 12,5 eta % 11,9, hurrenez hurren). Lurralde bakoitzean lortu den ehunekoari dagokionez, hiruretan antzera samar banatu dira salmenta elektronikoak. Ehunekorik handiena Bizkaikoa izan da (Euskal Autonomia Erkidegoko salmenta elektroniko guztien % 37,0); Gipuzkoan eta Araban, berriz, % 32,7ko eta % 30,3ko ehunekoak lortu dira, hurrenez hurren. Erosketen kasuan, berriz, banaketa desberdinagoa izan da. Bizkaian, 2019an Euskal Autonomia Erkidego osoan egindako erosketa elektroniko guztien % 51,3 egin dira, Gipuzkoan % 30,9 eta Araban % 17,8.

Establezimenduen tamaina kontuan hartuta, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduetan elkartrukatu da zenbateko ekonomikorik handiena merkataritza elektronikoan (salmenta guztien % 83,3 eta erosketa guztien % 69,8).

Bestalde, merkataritza elektronikoa erabiltzen duten establezimenduen ehunekoa % 27,1 izan da 2019an, hau da, aurreko urtean baino portzentajezko 0,8 puntu handiagoa. Igoera horren arrazoi nagusia elektronikoki erosten dutenen ehunekoak gora egin izana da (aurreko urtean baino portzentajezko 0,6 puntu handiagoa izan da), eta gaur egun establezimendu guztien % 24,7 dira. Nolanahi ere, salmenta elektronikoak egiten dituztenen proportzioa ia ez da aldatu; portzentajezko 0,1 puntu igo da, eta guztien % 7,0ra iritsi da.

Era berean, erosketa elektronikoak egiten dituzten establezimenduen kopurua salmenta elektronikoak egiten dituztenena baino askoz handiagoa bada ere, salmenta elektronikoaren zifra ekonomikoak erosketa elektronikoarenak baino handiagoak dira (21,5 mila milioi euro eta 15,9 mila milioi euro, hurrenez hurren).

### Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira										
	2001	2005	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2019
Salerosketa elektronikoa	3,0	10,5	15,1	17,3	19,7	21,6	24,8	26,4	26,0	25,1	27,1
Erosketak	2,7	9,6	14,2	16,1	18,0	19,7	23,1	23,9	24,0	23,0	24,7
Salmentak	0,4	1,9	3,9	4,1	4,6	5,2	6,0	6,5	6,5	6,8	7,0
Erosketen gaineko % (*)	9,6	15,5	28,1	30,8	33,7	29,4	30,6	31,3	33,3	36,2	38,4
Salmenten gaineko % (*)	9,9	24,6	38,6	39,3	36,6	35,9	38,9	36,8	35,1	41,4	43,7
	10 langile edo gehiago										
Salerosketa elektronikoa	6,4	19,5	23,1	24,9	27,7	27,5	28,8	30,0	29,7	29,0	33,2
Erosketak	5,1	17,3	20,3	21,4	23,6	23,4	25,0	25,3	25,8	25,1	28,3
Salmentak	1,8	5,1	8,5	9,8	10,4	10,0	10,8	11,4	11,9	12,6	13,8
Erosketen gaineko % (*)	4,6	10,3	24,6	30,8	33,7	27,0	28,3	31,0	30,7	32,4	32,9
Salmenten gaineko % (*)	12,7	19,4	38,4	40,9	42,8	36,2	37,8	42,6	42,1	43,2	44,2

(\*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoaren batez besteko %


**Iturria: Eustat. Informazioaren gizaritearen inkesta. Enpresak**

Zifra horiek desberdinak dira establezimenduen tamaina kontuan hartuta. Izan ere, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen % 33,2k egiten dute merkataritza elektronikoa, hau da, aurreko urtean baino portzentajezko 1,6 puntu gehiagok. Segmentu horren barruan ere gehiago dira erosketa elektronikoak egiten dituztenak (% 28,3), eta gutxiago salmenta

elektronikoak egiten dituztenak (% 13,8). Izan ere, gora egin du erosten dutenen kopuruak (portzentajezko 1,3 puntu) zein, neurri txikiagoan, saltzen dutenenak (0,7 puntu).

Erosketa elektronikoak egiteko erabilitako bideari dagokionez, guztizko zenbateko ekonomikoaren % 51,6 posta elektronikoa (e-mail) bidez egin da, % 23,9 EDIren eta beste sare batzuen bidez, eta gainerako % 24,5 webguneen bidez. Era berean, salmenten guztizko zifraren % 37,7 EDIren eta beste sare batzuen bidez egin da, % 32,8 posta elektronikoa bidez, eta % 29,5 Interneten saltzeko webguneen, aplikazioen (app-en) edo atarien bidez.


#### 2019ko salerosketa elektronikoak, erabilitako bitartekoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

2019an merkataritza elektronikoaren salmenten xede izan den bezero motari dagokionez, bitarteko elektronikoaren bidez fakturatutako salmenta gehienek (% 78,5ren) hartzaileak beste enpresa batzuk izan dira (B2B izeneko merkataritza), % 19,1en hartzaileak kontsumitzaile partikularrak (B2C), eta gainerako % 2,4 beste bezero mota batzuen artean banatu da, hala nola Administrazio Publikoetan (B2G).

#### 2019ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa Zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tel: 945 01 75 62*